

BEHATXULO[TIK

Juantxo EGAÑA



AQUILINO GARCIA DEAN. IRUÑEKO UDAL ARTXIBOA

LODOSAKO UBIDEKO LANAK, 1915EAN

1915eko maiatzean Lodosako ubideko obrak hasi ziren. Hiru urte geroago, 1918ko urriaren 24ko 564. zenbakian, "La Avalancha" aldizkariak, Iruñean argitaratuak, Murchantetik (Nafarroa) igarotzen zen ubidearen obren berri eman zuen. Bertan zehazten zen ubidea eraikitze aurrekontua, ia 12 milioi pezetakoa, baita Ebroko urekin 29.000 hektarea lur ureztatze ahalmena ere. Argazkian, kanaleko langileak ageri dira Murchante inguruan. Jose Ros kontratista ere ageri da irudian. Argazki horrek berak jantzi zuen aipatutako aldizkari al-bistea. Iruñeko Udaleko enplegatu eta argazkilari afizionatu izandako Aquilino Garcia Dea-nek egin zuen -hain justu, "La Avalancha" aldizkari zuzendaria ere bazen-. Gaur egun, Iruñeko Udal Artxiboak gordetzen ditu bere argazki-funtsak, batez ere XX. mendearen ha-sieran Nafarroako hiriburuak izandako eraldaketa erakusten dutenak.